

# txintxarri



## Erabakitzea helburu; parte-hartzea bidea

Gure Esku Dago herri ekimenak eta Loratu elkarteak antolatuta, herri galdeketa izango da datorren igandean. / 6-9

TXINTXARRI

## Etxeratzea aldarri

Larri gaixo dauden presoek etxeratzea eskatzeko manifestazioa deitu du Sarek / 3

Maiatzeko kultur agenda aurkeztu du Udalak eta hamaika ekintzaz beterik izango da hilabetea / 2

Ostadar SKTren kirol egokitua sailak, "Kirola denontzat" eguna ospatu zuen iragan igandean / 12

R.P.S. 175/15 LL.G.

**%30** deskontua

EGUZKITAKO BETAURREKOEN bilduma BERRI GUZTIETAN

[www.multioplicasgipuzkoa.com](http://www.multioplicasgipuzkoa.com)   

ARRASATE • BEASAIN • BERGARA • DONOSTIA  
ERRENTERIA • EIBAR • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

Kontsulta itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

Gure betaurreko guztiak bilduma berrietakoak dira

**AZKEN EGUNAK**

Kale Nagusia, 15  
Tel.: 943 37 74 55  
**LASARTE**

**MULTIÓPTICAS**  
lehena zerbitzu optikoetan



Udal ordezkariak egin zuten asteazkenean agendaren aurkezpena. TXINTXARRI

# Maiatzeko Kultur Agenda aurkeztu du Udalak

V. Musika Astea ospatzeaz gain, bertso emanaldi bat antolatu da udaberriko saio berezirako Ane Labaka, Andoni Egaña eta Maialen Lujanbiorekin.

## Lorena Lujanbio

Jesus Zaballos alkateak, Maite Iglesias kulturako zinegotziak eta Xabier Goitia teknikariak maiatzeko programazio kulturalaren aurkezpen agerraldia egin zuten asteazkenean, Manuel Lekuona kultur etxean.

## Bertsolaritza

Ttakun Kultur Elkarteak eta Earra! Bertso Eskolak antolatuta, maiatzaren 6an, gaueko 22:00etan Ane Labaka, Andoni Egaña eta Maialen Lujanbio izango ditugu Manuel Lekuona eta sarrerak 5,50 euro balioko du.

## Antzerkia

Maiatzaren 5ean, berriz, antzerki amateurz gozatzeko aukera izango da Ana Miranda zuzendariaren eskutik, 'Abuelas a la fuga' antzezlanarekin. Emanaldi hau, 19:30etan izango da, Auditorioan, 3 eurotan. Ikasleei zuzendutako 'Muxua' obra ere izango da, hilaren 19an, eguerdiko 12:00tan.

## Hitzaldiak

Ikus-entzunezkoekin batera, hitzaldiak ere izango dituzte

herritarrek. Lehenena, maiatzaren 3an izango da 20:00etan Manuel Lekuona. 'Merkataritzako eta ostalaritzako establezimenduetan segurtasuna' gaia landuko da, hura hobetzeko gomendioak emango dituztelarik.

Maiatzaren 8, 9 eta 10ean, 'Baliotan hezi' XIV. jardunaldiak egingo dituzte, 19:30etan, 'nerabezaroarekin bizitzen arriskuak txikiagotuz' gaia landuz.

Egun batzuk geroago, maiatzaren 11ean eta 12an, Udaltopen IX. edizioak hartuko du protagonismoa.

## Dantza eta musika

Aurten III. Dantzari Eguna eta XXIX. Dantzari Txiki Eguna izango dira, maiatzaren 27an eta 28an. Hortaz gain, hilaren 31an, udal dantza eskolaren kurso bukaerako emanaldia izango da, 19:30ean.

Musikari dagokionez, V. musika astea ospatuko da, eta hainbat emanaldi antolatu dituzte; 'Viaggio musicale', maiatzak 19an, 19:30etan, Brigitarren Komentuan; 'Opera, opera comica eta zarzuela', maiatzak 20ean, 19:30etan Manuel Lekuona; 'La del manojo de rosas' zarzuela, maiatzak 26an, 19:30etan Manuel Lekuona -12 euroren

truke-; eta Irungo Kontserbatorioko orkestaren kontzertua, maiatzak 27ko 19:30ean, kultur etxean.

## Zinea

Maiatzan adin guztietara egokituko diren zinema saioak izango dira ikusgai. Igandetan helduentzako zinea izango da, 19:30ean, 5,50 eurotan. Hilabete honetako filmak 'Moonlight', 'El bar', 'Cantábrico' eta 'Nieve negra' izango dira. Arratsaldeko 17:00etan, ordea, haurrei zuzendutako zinea proiektatuko dute, 3,80 eurotan. Haiek izango dira gaztetxoek ikusi ahal izango dituzten filmak: 'La bella y la bestia', 'Igelen erresuma', 'El bebe jefazo' eta 'Your name'.

Ostiraletan zine forumaz gozatzeko tarte ere egongo da, 22:00etan 5,50 euroren truke; 'Moonlight' eta 'Locas de alegría'.

## Erakusketak

Antonio Mercero gunek bi erakusketa hartuko ditu. Lehenbizikoa, maiatzaren 2tik 12ra, Euskal Fondoaren eskutik. Hilaren 19tik 26ra, berriz, José M<sup>a</sup> Monge ikasleen margolanen erakusketaz gozatu ahalko da.

## Maiatzaren 26a, literatur lanak aurkezteko azken eguna

Udalak jakitera eman ditu XXXI. Literatur Lehiaketako zein XXX. Haur eta Gazteen lehiaketetako oinarriak

### Txintxarri

Urtero legez, Lasarte-Oriako Udalak literatur lehiaketetan parte hartzeko oinarri eta baldintzen berri eman du.

Euskaraz zein gazteleraz idatzitako poesiak, ipuinak eta mikroipuinak sarituko ditu epaimahaiak aurtengo lehiaketan ere.

Idazlanek originalak izan beharko dute. Parte-hartzaileek maiatzaren 26rako aurkeztu beharko dituzte, beranduenez. Sari-banaketa azaroaren 25ean

egingo da, larunbatarekin, Manuel Lekuona kultur etxean.

Sariak espezialitateka banatu dituzte antolatzaileek. Poesiak idazten dituzten parte-hartzaileek honako sariak irabazi ahalko dituzte: euskaraz idatzitako izan badira, 650 euro eta diploma; kopuru bera patrikaratuko du gaztelerazko 1go saria irabazten duenak. Mikrokontakizunen espezialitatekoek, euskaraz zein gaztelaniaz, 325 euro eta diploma irabaziko dituzte.

## Errenta aitortpena euskaraz egiteko deia, herritarrei

Errenta aitortpena egiteak etekinak ekartzen dizkio gizarteari; diru horrekin hainbat zerbitzu bermatzen dira. Baina euskaraz egiteak, balio erantsi bat du; gure hizkuntza eta horren erabiltzaileak indartzen dira.

Buruntzaldeako (Lasarte-Oria, Usubil, Hernani, Urnieta, Andoain eta Astigarraga) udaletako Euskara Zerbitzuek,

urteak daramatzate errenta aitortpena euskaraz egin dezaten herritarrek animatzen. Horrela, urtez-urte, poliki-poliki badoa ere, errenta aitortpena euskaraz egiten duten herritarren kopurua goraka doa, eskualdean.

Gorakada horri eutsi asmoz eta geroz eta herritar gehiago animatzeko helburuarekin, Buruntzaldeako facebook orrialdean, lehiaketa bat jarriko dute abian, eta mezua partekatzen duten erabiltzaileen artean, saria zozketatuko dutela jakinarazi dute.



TXINTXARRI

## Udaberri koloreko Okendo plaza

Udaberrikoa baino, udako eguna zirudien larunbatekoak. Okendo plazan udaberri koloreak gailendu zira, Lore eta Landaren V. azokarekin.

Mota guztietako loreak ikusi eta erosi ahal izan zituzten lasarteoritarrek, azokako hamalau postuetan. Eta ez loreak bakarrik: kosmetika produktu naturalak eta hainbat belar desberdin ere bai. Gaztetxoentzako tailerrak ere izan ziren.

# Herria, maiatzaren 6ko manifestazioaren bihotza

Sare Lasarte-Oriaren deiari erantzun zioten iragan larunbatean lasarteoriatar ugari. Besteak beste, larriki gaixo dauden presoak etxeratzearen alde maiatzaren 6an Gasteizen egingo den manifestaziora joateko deia egin zuten.

## Txintxarri

Lasarteoriatarrek bihotzetik altxa zituzten behatzak iragan larunbatean, larriki gaixo dauden presoaren alde, maiatzaren 6an Gasteizen osatuko den mosaikoaren argazkirako. Sare Lasarte-Oriak antolatu zuen ekitaldia. Besteak beste, datorren hilabeteko lehenengo larunbatean Gasteizen egingo den manifestaziora joateko deia luzatu zuten kideek.

"Nahiz eta hamahiru diren, batez ere Oier Gomez daukagu buruan egunotan", nabarmendu zuten agerraldian bildutakoek.

Astelehen honetan jakin zen Gomez euskal presoaren zigorra etetea onartu zuela Frantziako Dei Auzitegiak. Erabaki horren aurrean, balorazio bat ere egin zuen mugimenduak: "Sarek begi onez hartu du erabaki hau, naiz eta berandu datorren, pertsona guztiek baitaukate osasun eta beharrezko tratamendu bat izateko eskubidea".

Era berean, asteazkenean, hilak 26an, Espainian eta Portugalen dituen euroaginduei buruzko erabakia ere jakinarazi zuen Pauko auzitegiak; Oier Gomez aske uztea deliberatu zuen.

Larriki gaixo dauden Gomez eta beste hamabi euskal presoaren



Maiatzaren 6an egingo den manifestaziora joateko deia egin zuen Sarek. TXINTXARRI

etxeratzea eskatzeko, Sarek manifestazioa antolatu du maiatzaren 6rako, Gasteizen. Lasarte-Oriako Sarek deia luzatu nahi izan zien larunbateko agerraldian herritarrei bertara joateko, eta eguerdiko 15:30ean Tajamar biribilgunetik autobusak irtengo direla ere jakinarazi zuten.

Era berean, hamahiru herriren artean mosaiko bat egingo dutela ere zehaztu zuten, 'Preso dauden gaixo larriak etxera' esaldiarekin eta beste hainbat elementurekin. Horien artean Lasarte-Oria,

adibidez, mosaikoaren bihotza izango da. Larunbateko ekitaldian irudi hori zabaldu eta argazkia atera zuten.

## Azken ostirala

Bide batez, Sare Lasarte-Oriak gogorarazi nahi izan zuen gaur, ostirala, ohi bezala, 'azken ostirala' egingo dutela Okendo plazan, iluntzeko 20:00etan. Horretara joateko deia ere luzatu zuten, eta baita datu bat eman ere: "Euskal presoaren %80 euren etxetik 400 kilometro baino gehiagora daude espetxeratuta".

## Haurren hortzak zeruko izar bihurtuko ditu Mariteilatukok

2009 eta 2012. urteen bitartean jaiotako haurrentzako ipuin kontaketa saio berezia izango da, Villa Mirentxun, asteartean

### Maddi Noriega

Mariteilatukok Lasarte-Oriako haur eta gaztetxoak bisitatuko ditu datorren asteartean, apirilaren 2an.

Bea Egizabalen eskutik, ipuin-kontaketa saio berezia antolatu du Ttakun Kultur Elkarteak

egun horretarako, Villa Mirentxun, arratsaldeko 17:30ean.

Ipuin kontaketa saioa amaitu eta gero, tailer batean parte hartu ahal izango dute bertaratzen diren haurrek. Bertan, erori zaizkien hortzak gordetzeko zorro txiki bat egin ahal izango dute

eskulanen bidez. Horrela, Mariteilatukok zorroan gordeko dituzten hortz horiek jasoko ditu gauetan, zerura bota eta izar bihurtzeko. Hortz horien trukean, oparitxo zein sorpresa txiki bat jaso ahal izango dute haurrek, etxean.

Antolatzaileek jakitera eman duten moduan, 2009 eta 2012 urteen bitartean jaiotako haurrei zuzendutako saioa izango da, eta helduek lagunduta joan beharko dira ipuin-kontaktetara.

Herriko haur eta gazteak animatu nahi dituzte.

## NEURE KABUZ



GORKA ALVAREZ

## GURE BIDEA

Katalunia eta Euskal Herria. Euskal Herria eta Katalunia. Betidanik lotura izan duten bi herrialde. Naziotasunerako urratsetan, euren hizkuntza bultzatzeko egitasmoetan, hainbat ekimen kulturaletan eta bereziki herri izaera beretsuan. Azkenaldian ordea, Kataluniak bere naziotasunerako bidean, urrats garrantzitsuak emateko erabakia hartu du. Gurean, hainbat urrats ematen ari garen arren, erakunde eta politikarien inplikazioa ez da nahikoa momentuz. Gainera, euskaldun ekintzaile, sustatzaile eta sortzaileak urritzen hasi diren honetan, belaunaldi berrien bultzada ideologiko desberdin batek soilik, apurtuko ditu gure herrian errotuta dirauten elkarren arteko amorru, liskar eta iraganeko arazoak.

Kontua da, azkenaldiko gertaerek, kataluniar ibilbidea gertutik jarraitzea eraman gaituztela. Uste dugu Kataluniaren pare jar gaitzkeela hainbat gaietan eta zoritxarrez batzuetan eta zorionez besteetan, bi prozesu, bi ibilbide eta bereziki bi herri desberdin garelako alboratzen dugu.

Hizkuntzari dagokionean adibidez, oso urrun gaude Katalunian katalanak duen erabilera, ulermen eta bereziki onarpen mailarekin alderatuta eta hizkuntza politikan, gure bidea egin beharko dugulakoan nago, pixkanaka gure izaeraren oinarri den euskara indartu nahi badugu. Horretarako bidea, erabilera eta irakaskuntzak izan beharko dutelarik.

Bestetik esan, ispilu moduan ari garelako begiratzen prozesu kataluniarra eta errezeloa dut ez ari ote garen euren bide orria kopiatu nahian, ispiluan begiratu eta isla hori gustuko dugunez, atzetik joan nahian. Bi jendarte, bi parlamentu eta bi herrialde desberdinetaz ari gara eta uste baino desberdinagoak gainera. Bi ibilbide desberdin egin beharko genituzkeela uste dut. Hemen bizi izan duguna eta han bizi izan dutena ez baita berdina izan. Horregatik, bakarrik egin beharrezko bidean laguntza modura euri so egitea bai, baina erabat euren islada izatea, itsutzea litzatekeela deritzot.

Horregatik, guztion inplikazioa beharrezkoa dela uste dut, gure bidea eraiki nahi badugu. Politikariek busti egin beharko dute erakundeek sortutako eta eraikitako itsasontziak bidea egitea bada nahia. Gizarteak ilusioa, lana eta eguneroko izaeraz mugituko diren olatuak sortu beharko ditu, denon artean itsasontzia desiratutako portura iritsi dadin.

Ez gaitzen ba itsaso nahasian gal, har dezagun porturako bidea eta agian egunen batean Mediterraneo eta Kantauri itsasoek bat egingo dute askatasun orro batean. Hori bai, itsasontzi banatan egin beharko ditugu bideak; Mediterraneo ez baita inoiz Kantauri itsasoa izan eta olatuek beti gogorrako jotzen baitute gure kostalde zoragarri honetan. Boga boga Euskal Herria.

**Kruzeroa taldean**  
Lasartetik irteera + Noaoaren laguntzarekin  
Baltikoko hiriburuetatik

**NOAOA BIDAIAK**

*Azken hamaroteka!*

943 373 613 • info@noaoa.eus • www.noaoa.eus  
Hipodromo Etorbidea 10, 20160 Lasarte-Oria



Lehenago urtean jende andana bildu zen Okendo plazan. TXINTXARRI

# Dantzaren nazioarteko eguna Villa Mirentxun

Bihar, apirilaren 29a, Dantzaren Nazioarteko Eguna ospatuko da munduko txoko guztietan. Lasarte-Orian ere egitarau berezia prestatu dute Kukuka antzerki eta dantza eskolako lagunek, eguerdiko 12tan hasita Villa Mirentxu aurreko plazan

## Martin Vicioso

Urtero legez, aurten ere ospatuko da Dantzaren Nazioarteko Eguna Lasarte-Orian. Kukuka antzerki eta dantza eskolak antolatu du bihar Villa Mirentxun egingo den ekitaldia, Udalaren laguntzarekin batera.

Adierazi dutenez, aurreko urtetan "modu lokalagoan" ospatu izan dute. Izan ere, herriko

dantzari eta dantza eskolekin batera prestatu izan dituzte egitarauak. Aurten, berriz, "zabaltzeko" apustua egin nahi izan dute.

Horretarako, Euskal Herrian izen ona eta ibilbide oparoa duten hiru dantzari gonbidatu dituzte. Erakustalditxoak egiteaz gain, haiekin solasteko aukera edukiko dute bertaratutakoek Villa

Mirentxu aurreko plazan eguerdiko 12tan hasita.

## Dantza anitzak

Arantza Iglesias, Myriam Perez eta Sergio Nguema izango dira biharko emanaldian arituko diren dantzari eta koreografoak.

Ez dituzte saio luzeak egingo. Izan ere, helburu nagusia dantza ezberdinen zertzeladak jasotzea

da. Hori dela eta, hamar eta hamabost minutu bitarteko erakustaldiak taulagaineratuko dituzte. Esperientziadun dantzariak euren espezialitateak erakutsiko dituzte.

Arantza Iglesias dantza garaikidean eta afrikarrean aditua da, eta erakustaldiak egiteaz gain, tailerrak ere antolatzen ditu.

Myriam Perez dantzari eta koreografoak ere dantza garaikidea du espezialitate. Berak ere zenbait ikastaro antolatu ditu azken urtetan.

Hip hopa eta 'break dance'-a lantzen ditu, berriz, Sergio Nguemak. Slowww dantza taldeko kideak 'Tiempo' izeneko lan berria aurkeztuko du lasarteoriarren aurrean.

Hiruek bere emanaldia amaitzean, euren ibilbidea aztertuko dute bertaratutakoekin. Antolatzaileek jakitera eman dutenez, "herriarren parte hartzea gogoz eskertuko" lukete.

Halaber, 'lunch' edo hamaiketakoak egingo dute lagunartean.

## Grabitatea gaintuz

Dantzaren Nazioarteko Egunez, urtero ospe handiko koreografo bati manifestua idazteko enkargua egiten zaio. Dantzari eta dantzak sortutako sentimen eta eraginei buruzko hausnarketak izan ohi dira.

Aurtengo testua Trisha Brown estatubatuarrak idatzi zuen. Martxoaren 18an zendu zen, eta sari eta aitorten ugari jaso zituen bere ibilbidean zehar. Hortaz, aurtengo Dantzaren Nazioarteko Eguneko ospakizunak bere omenez ere izango dira, neurri batean. Hona hemen aurten idatzitako manifestuaren zatitxo baten itzulpena:

"Dantzari egin nintzen nire hegan egiteko desioagatik. Grabitatea gaintuztea izan zen gehien emozionatu izan nauen gauzetako bat. Ez dago gordetako esanahirik nire lanetan. Forma fisikoa hartzen duen jarduera izpiritual bat da".

Manifestuaren beste pasarte batzuk ere gogoratuko dituzte bihar, euskaraz eta gaztelaniaz.

## Bosgarrenez

2013an antolatu zuen egitaraua Kukukak lehen aldiz Dantzaren Nazioarteko Egunaren harira. Beraz, aurtengo ekitaldia bosgarrena izango da.

Esan bezala, herriko beste dantza taldeekin antolatu ohi izan dute aurreko urteetan. Hala, Erketz EDT-k, Amaia Caballeroren eskolak, Zembrak eta Kukukak berak hartu izan dute parte, besteak beste.

Dantza anitzak uztartu dituzte, eta euskal dantza tradizionalak jorrateaz gain, doinu eta erritmo afrikarren, kubatarren edo garaikideen gainean ere dantzatu dute.

Herriarrek gustura hartu dute parte orain arteko bost ekitaldietan, eta biharko erakustaldietara ere gerturatzeko deia luzatu dute antolatzaileek.

Ondorengo solasaldian ibilbide handiko hiru dantzariekin solasteko aukera izango denez, dantza gustuko duten edota dantzarekin interesa duten herriarrek aukera paregabea edukiko dute bihar.

## ARANTZA IGLESIAS, MYRIAM PEREZ ETA SERGIO NGUEMA KOREOGRAFOEK DANTZATUKO DUTE

## Azkorteko usadioari jarraiki beste urtebetez ermitara

Eguerdira arteko egitarau zabala izango da aurtengo erromeria egunean ere. Giroa ez da faltako ermitan

## Maddi Noriega

Aurten, Maiatzaren 7an, usadioari jarraiki Azkorteko erromeria ospatuko da. Maiatzaren 3an, Santa Krutz egunean, Urnietako bizilagunak ospatu ostean.

Ttakun kultur elkarteak, Lasarte-Oriako Udalaren eta

herriko hainbat eragileren laguntzaz, erromeria goiz ederra ospatuko dute datorren igandean.

Goizean emango zaio hasiera ospakizun egunari. Horrela, 11:00etan, Ama Birjinaren omenezko meza izango da ermitan. Ostean, Ttiriki Ttarraka eskolako

lagunek haien doinuekin alaituko dute goiza.

Herri-kirolak ikusteko tartea ere izango da. Telleria anaiak harri-jasotzaile lanetan aritzeaz gain, Mugertza anaiak aizkora lanetan arituko dira.

Festa egunari amaiera emateko, dantzaldia ere izango da.

Antolatzaileek jakitera eman dutenez, bertara gerturatu nahi duenak oinez zein autobusez egin beharko du. Autobus zerbitzua goizeko 9:00etan hasiko da.



Santa Krutz eguna ospatuko da datorren igandean Azkorteko ermitan. TXINTXARRI



Lehenengo urtean bezala, Ane Labaka, Andoni Egaña eta Maialen Lujanbio arituko dira bertsoan TXINTXARRI

## Dantzan jarriko dituzte soinuaren errimak

Datorren larunbateko Udaberriko bertso saioan trikiti doinuak eta dantza nahastuko dituzte bertsoaritzarekin. Sarrerak 5,50 eurotan eskuratu ahal izango dira

### Txintxarri

Bertsolaritza, Trikiti doinuak eta dantza uztartuko dituzte aurtengo Udaberriko Bertso Saioan. Urtero bezala, Ttakun Kultur Elkarteak, Earra! Bertso Eskolak eta Lasarte-Oriako Udalak antolatuko dute elkarlanean.

Datorren larunbatean, maiatzaren 6an, egingo dute 'Soinuaren errimak dantzan' izenburua duen saioa Manuel Lekuona kultur etxean gaueko 22:30etatik aurrera.

Herriko trikitalari eta dantzarietako protagonismoa emango diete aurtengo ekitaldian.

Andoni Egaña, Ane Labaka eta Maialen Lujanbio izango dira trikiti doinuen eta dantzen gainean kantatzeaz arduratuko diren bertsolariak. Bestalde, gai jartzaile lanak Uxue Loinazek egingo ditu.

Jakitera eman dutenez, Trikitian hiru talde eta bi bakarlaritako dira: Aitor Lasa eta Dani Narbarte; Peio Aiestaran, Goiatz Aiestaran eta Iñigo Azkue; Ttirriki Ttarraka, Joseba Tapia eta Urtzi Agirretxe izango dira ekitaldiari musika doinuak ipiniko dizkietenak.

Bestalde, Erketzek, Kukukak, Alazne Ramosek eta Uxue Odriozolak, eta Maider Oiartzabalek eta Ibai Fresnedok dantzatuko dute Manuel Lekuona kultur etxera gerturatuko diren herritarren aurrean.

Intza Alkainek ere 'sketch' bat egingo du Maurizia Aldeiturriaga panderojolearen papera antzezten.

### Sarrerak

5,50 eurotan eskura daitezke sarrerak Manuel Lekuona kultur etxean bertan. Halaber, 10 sarrerako bonoak erosi daitezke 45 eurotan.

## 'Herria Bizi' programa martxan izango da asteazkenetik aurrera

Lasarte-Oriako Udalak eta DYAK elkarlanean, mugitzeko zailtasunak dituztenei laguntza eskaintzeko zerbitzua da

### Txintxarri

Etxeetatik ateratzeko laguntza espezializatua behar duten herritarrei laguntza emateko asmoz, 'Herria Bizi' programa martxan jarriko du Lasarte-Oriako Udalak DYArekin elkarlanean.

Igogailurik ez duten eta eskailera estu eta traketsak dituzten etxebizitzetatik jaitsi eta igotzeko laguntza eskainiko diete interesatuei, baita, beharrezkoa den kasuetan, autobus geltokietara hurbiltzeko laguntza ere.

Programaren helburu nagusia, gizarteratze prozesua bultzatzea da, horren bitartez, herriko ekintzetan parte hartzeko aukera izan dezaten lasarte-oriatarrek.

Antolatzaileek jakinarazi duten moduan, datorren asteazkenean, azoka egunarekin batera, eskainiko da lehen zerbitzua, goizeko 10:00etatik eguerdiko 13:00etara.

Zerbitzu hau jaso nahi duten herritarrek honako telefono zenbakietara deitu beharko dute: 943-464622 eta 943-376179.

## Segurtasunari buruzko aholkuak jasoko dituzte merkatariak

Azken hilabetetako lapurretek sortutako beldurrezko egoeraren aurrean hitzaldia egingo dute asteazkenean

### Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak eta Aterpea merkatarien elkarteak bultzatuta, Ertzaintzako kideek hitzaldia emango dute Manuel Lekuona kultur etxean. Asteazkenean 20:00etatik aurrera, aholkuak emango dizkiete herriko merkatarietako lapurretak ekidite bidean.

'Oinarrizko neurriak eta segurtasuneko gida praktikoa merkataritzarako eta ostalitzako establezimenduetan' izeneko dokumentua ezagutuko dute

bertaratutakoek. Izan ere, antolatzaileek adierazi dutenez, "poliziaren zuzeneko interbentzioaz gain, segurtasun neurri egokiak hartzea" garrantzitsua da.

Azken hilabetetan egindako lapurreten arduradunak harrapatu dituztela jakinarazi du Jesus Zaballos alkateak, baita "tamalez", horietako bat lasarte-oriatarra dela.

Merkatarientzako interesgarria izango delakoan gonbita zabaldu dute jendea bertaratu dadin.



# MAiTE

## ESTETIKA ARETOA

Orduetegi malgua daukagu

Uistin Kalea z/g • Lasarte-Oria  
Tel. 943 37 08 45

Merezi duelako,  
oparitu kapritxo bat  
amatxori!

Gure tratamendu eta  
zerbitzuak opari-txartel  
moduan oparitu ditzakezu!  
Keinu txikiak bizitza alaitzen dutelako

Makillajea - Depilazio ezberdinak - Manikura eta pedikura - Ultramorerik gabeko beltzarantzea - Aurpegi eta gorputzeko tratamenduak - Betileen permanentea eta tindatzea

# Lanbide Heziketako materiala euskaratzeko lan itzela

KEPA ALTUBE ERAÑA IKASMATERIALA EUSKARATZEKO EKIMENAREN KUDEATZAILEARI ELKARRIZKETA

'Laneki' euskara sustatzeko Lanbide Heziketako elkarteak eta 2001az geroztik 860 moduluertarako 710 ikasgai euskarara egokitu dituzte. Jakinbai.eus webgunean euskarara ekarritako ikasmaterial guztia eskegita dago. Langintza horretan meritu handia duite irakasle bolondresak. Baina ezin aipatu gabe utzi erakunde ezberdinen sustengua, tartean Buruntzaldeko Udaletako euskara zerbitzuena.

**Laneki elkartearen eta jakinbai.eus webgunearen sorburua gabezia batetik abiatzen da...**

Lanbide Heziketan euskaraz irakasteko kezka hori aspaldikoa da. Irakasle talde batek ekin zion lanari, eta 2001ean sortu zen euskara sustatzeko Lanbide Heziketako Laneki elkarteak. D ereduaren alde egiteko apustua egin zen orduan. Ikasmateriala, ordea, erdaraz zegoen. Bestalde, ikasgaiak ugari dira: Lanbide Heziketan, zortzirehundik gora. Argitaletxeen aldetik oso zail zegoen, eskaintza hain dibertsifikatua izatean ikasmaterial bakoitzaren hartzaile kopurua oso txikia delako. Ez zen, beraz, errentagarria. Bide hori alde batera utzita, irakasleak hasi ziren euskarazko ikasmateriala sortzen.

Laneki Helte Lanbide Heziketako ikastetxeen elkarteak eta Ikaslan Gipuzkoa Lanbide Heziketako Institutu Publikoaren Elkarteak sortu zuten.

Hasiera hasieratik webgune bat sortzea erabaki zen, digitalki eskegi eta zabaltzeko.

**Internet erdigunean ipini zenuten. Oso garbi eduki zenuten hori...** Ekoizpen gastu handia saihestu genuen, eta ikasmateriala



AIURRI

eraldatzeko eta berritzeko aukera eskaintzen digu webguneak. Abantaila horiei heldu diegu aurrera egiteko. Sarearen iraultza hori garrantzia handikoa izan zen euskarazko ikasmaterialak landu ahal izateko. Sortu dugun erremintaren antzeko eredurik ez dugu inon topatu, orain arte. Alta emandako 5.000 erabiltzaile ditugu, material hori eskuratu eta irakaskuntzarako erabiltzen ari direnak.

**Urte urte ikasmaterial gehiago euskaratzen ari zarete. Oker ez bagaude, 2016an 41 ikasmaterial ezberdin euskaratu zenuten. Zeren arabera erabakitzen duzue zein den lehentasunezkoa?**

Ikasturte hasieran, irailean, plangintza egiten hasteko irakasle taldeen artean galdeketa luzatzen dugu. Zerrenda jasotzen dugu, une honetan 80 proposamen

ezberdin ditugu, eta ikasmaterial bakoitzaren hartzaile kopurua eta beste hainbat faktore kontuan hartuz, proposamen bakoitzari puntuazioa ematen diogu. Aurrekontuaren arabera euskaratzen dugu ikasmateriala, urtero-urtero. Irailetik abendura bitarteko prozesua da hori. Ondoren, argitaletxe ezberdinekin euskaratu beharreko materialaren itzulpen baimenak negoziatu behar izaten ditugu. Diru zati handi bat baimen kontuetan joaten zaigu. Baimenak lortuta, euskaratzeari ekiten diogu.

**Zenbaterainokoa da Buruntzaldeko Udalen ekarpenaren garrantzia?** Erabatekoa. Buruntzaldeko Udalen aldetik sostengu garrantzitsua jasotzen ari gara. Eta ez bakarrik sostengu ekonomikoa. Egitasmoarekin bat egiten dutela sentitzen dugu:

Zabalkundean laguntza ematen digute, ekarpenak egiten dizkigute. Harreman estua izaten dugu ikasturte osoan zehar. Eskualdeko euskara zerbitzuak teknikariekin eta Lanbide Heziketa ikastetxe ezberdinetako hizkuntza normalkuntzarako arduradunekin lortu dugun harreman horri garrantzia handia ematen diogu.

**Lanbide Heziketari eta enpresa munduari lotuta, iaz garrantzia handia eman zitzaion Lanpres gidari. Ekoizpen lan hori ere zuena da. Zer da Lanpres?**

Lanbide Heziketan euskaraz ikasitako ikasleak, maiz, enpresa munduan praktikaldia egiterakoan, erdarara jotzeko joera izaten zuen. Eta hori bideratzeko eta zuzentzeko eskaera zehatza jaso genuen. Gida bat ekoiztea erabaki genuen, paperean eta internet sarean dagoena. Funtsean, ikasleak euskarazko praktikaldia egiteko argibideak eskaintzen dira gida horretan. Orain arte egiten ez zen galdera sinplea dago gidaren oinarrian: Enpresako instruktorea euskal hiztuna al da edo ez? Euskalduna baldin bada, informazio osoa eskaintzen zaio. Galdera sinple bat funtsezkoa izan daiteke. Dagoeneko praktikaldia egiteko idazkietan galdera hori txertatzea lortu dugu. Buruntzaldea egitasmo berri horren eragile nagusietakoa izan da.

Gidak sei atal ditu, lau atal ikastetxei bideratuta eta ikaslea praktikaldian hartuko duen enpresari bideratuta beste bi atal.

Bada, dagoeneko enpresa mundutik antzeko gida berria egiteko proposamena jaso dugu, baina bereziki enpresa ikuspuntutik. Zeregin horretan gabilta, Lanpres Gida izena hartuko duena.

## ESKUALDEAREN EKARPENA

Andoain, Astigarraga, Hernani, Urnieta eta Usurbil herrietako udal laguntzaren eta probintzia nahiz Euskadi mailako erakundeen finantziarioari esker ikasmateriala euskaratzen dihardu Laneki elkarteak. Buruntzaldeko Udalek 7.000 euroko diru ekarpena egin zuten iaz, eta egitasmo osoaren aurrekontua 186.000 eurokoa da.

## IKASMATERIALA

Jakinbai.eus webgunean ehunka ikasgai eskegita daude, Euskal Herri osoan Lanbide Heziketa ikastetxeetan erabili ahal daitezkeenak. Euskaratutakoa ugaria eta zabala da, alor guztiei dagokiena. Besteak beste, administrazioa eta kudeaketa, elektrizitatea eta elektronika, eraikuntza eta obra zibilak, fabrikazio mekanikoa, garraio eta ibilgailuen mantenimendua, informatika eta komunikazioa, merkataritza eta marketina, osasungintza, ostalaritza eta turismoa, segurtasuna eta ingurumena, zurgintza, eta abar luzea.

## LANPRES GIDA

Iazko berrikuntzarik nabarmenetakoa izan zen Lanbide Heziketan. Proiektuaren xedea Lanbide Heziketako ikasleek lantokiko prestakuntza eta ikasketak duala euskaraz egin ahal izatea da. Hori ahalbidetzeko, Eusko Jaurlaritzak enpresetarako gida aurkeztu zuen. Lan horren ardura Laneki elkartearena izan zen.

# Eskualdeko matrikulazio datuen aletzea

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoan euskarazko eskaintza nagusi den heinean, Erdi mailako eta Goi mailako heziketa zikloetan aztertu beharreko fenomeno gertatzen ari da. Datuei erreparatuta, Lanbide Heziketan tarteko eredu den B eredu euskara hutsezko D ereduaren kontura hazten ari da. Bien bitartean, A ereduaren ez da aldaketarik sumatzen. Izatekotan, pittin bat gorago egiteko.

Euskarazko heziketaren aldeko apustua egiten duten erakundeetan aldetik, aztertu beharreko fenomeno da Lanbide Heziketako maila ezberdinetan hizkuntza eredu bakoitzean garatzen ari den fenomeno. DBHn eta Batxilergoan D eredu nagusi den moduan, Erdi mailako eta Goi mailako zikloetan A ereduak pisu handia izaten jarraitzen du. 2015-2016 ikasturteetik aurrera tarteko eredu den B eredu ofiziala izaten hasi zenetik, gorunzko igoera pairatzen ari da. Baina bitxia badirudi ere, igoera hori euskara hutsezko D ereduaren eskaintzaren kontura gertatzen ari da. Esan nahi baita D ereduaren matrikulatutako ikasle

kopurua jaisten ari dela B eredu ezarri denetik. Ikasleak A eredutik B ereduera erakarri nahi baziren ere, oraingoz kontrako efektua gertatzen ari da. Ondoko taulan ondoko ikusten denez, A ereduak ez baitu jaitsierarik pairatu. Are gehiago, izan duen aldaketa gorunzkoa izan da. Zalantzarik gabe, hezkuntza eta euskara arloko eragileek ondo aztertu beharreko fenomeno da. Oraindik ere A ereduak pisu handia dauka eskualdeko Lanbide Heziketa zikloetan. Goi mailakoetan, gaur gaurkoz, ikasleek gehien aukeratzen duten eredu da. Eta Erdi mailan, bigarren aukera da.

## DBH

ikasturtea	Ikasleak	A	B	D
2014-15	2180	%0	%4,9	%95,1
2015-16	2134	%0	%5,8	%94,2
2016-17	2354	%0	%5,3	%94,7

## BATXILERGOA

ikasturtea	Ikasleak	A	B	D
2014-15	703	%6,8	%5,7	%87,5
2015-16	754	%7,2	%5,4	%87,4
2016-17	760	%5,3	%5,1	%89,6

## ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

ikasturtea	Ikasleak	A	B	D
2014-15	379	%44,6	%25,6	%29,8
2015-16	413	%37,8	%31,5	%30,8
2016-17	418	%38,5	%46,9	%14,6

## GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

ikasturtea	Ikasleak	A	B	D
2014-15	1046	%45,9	%21,6	%32,5
2015-16	953	%45,4	%20,4	%34,2
2016-17	1069	%45,7	%22,5	%31,9

ITURRIA: BURUNTZALDEKO UDALAK



11 aukera,  
11 Lan 

Lanbide Heziketan ERE D eredu



Andoain, Astigarraga, Hernani,  
Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo  
Udaletako Euskarako Batzordeak  
[www.buruntzaldea.eus](http://www.buruntzaldea.eus)



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

**Maddi Noriega**

Lasarte-Oriatarrek bozka emateko 10 egun besterik ez dira geratzen. Egun handia izango da maiatzaren 7a gurean, Loratu elkarteak eta herriko Gure Esku Dago ekimenak antolatutako herri galdeketa egingo da aipatu egunean, Lasarte-Orian.

Lan talde ezberdinetan banatuta, prozesu guztia aurrera eramanez ahal izateko lanak eginda, azken egunotako eginbeharretan murgildu da Loratu elkarteak. Hautesontziak, gutun-azalak eta paperak prest, azkeneko lanak besterik ez dira gelditzen dagoeneko.

Gure Esku Dago herri ekimenak Lasarte-Orian izan duen bilakaeraz hitz egin eta datorren igandeko galdeketa egunaren nondik norakoak ezagutzeko, Loratu Elkarte Mikel Arruti lehendakaria, Marijo Goizueta, ekonomia eta logistika lantaldeko kidea, Jose Carlos Carrasco, harremanetarako batzordeko kidea eta Eneko Sarasola Ekintzak lantaldeko kideak TXINTXARRIekin izan dira.

**Nola sortu zen Gure Esku Dago taldea Lasarte-Orian?**

GEDren hasierak Idiazabaletik ulertu behar dira. Bertan, herri elkarte batetik, nazio mailako elkarte baterako salto eman zen: Nazioen Mundua.

Herriarrak bildu ziren helburu baten baitan: nazio guztiek duten erabakitze eskubidea aldarrikatzea, eta hor kokatzen zuten Euskal Herriaren erabakitze eskubidea ere.

Proiektu horren zabalkundearekin batera, aldaketa batzuk eman ziren eta 2014. urtean, giza katearen proiektuarekin batera sortu zen GED ekimena.

Sortzearekin batera, herriz herri ekintza batzuk egin zituzten, eta horrela, 3-4 pertsonako talde bat sortu genuen, eta 2014. urteko ekainean egin zen Giza Katearen ekintza antolatzen hasi ginen.

Lehen ekintza hori eta gero, GEDren dinamikan bete-betean sartu ginen, taldea ere indartzen joan zen pixkanaka.

Bidean, pausu garrantzitsu bat eman genuen hemen, Lasarte-Orian. Aurreko urtean mobilizatu genuen jende guztia saretu genuen eta Tutore Sistema jarri genuen martxan. 1000 pertsona saretu genituen.



Martxoaren 3an, Brigitarren Komentu aurreko plazan egindako ekitaldian aurkeztu zituzten maiatzaren 7rako galderak. TXINTXARRI

# "Prozesu osoa izugarritzko inbertsioa izan da herrirentzat"

**MIKEL ARRUTI, MARIJO GOIZUETA, JOSE CARLOS CARRASCO ETA ENEKO SARASOLA GURE ESKU DAGO HERRI EKIMENEN ETA LORATU ELKARTEKO KIDEAK**  
Datorren igandeko herri-galdeketa begira dira kideak; azken prestaketa lanetan jada

**Zertan datza tutore sistema hori?**

Erronka bat jarri genuen Lasarte-Orian; sortu genezakeela herrian tutoreek osatutako 50 pertsonako talde bat, horietako bakoitzak, bere inguruan 10-20 pertsonako talde bat izango zuena. Gaur egun ere Lasarte-Oriako GEDren antolaketako bizkarrezurreta bat da tutore sistema.

**Iaz hasi zineten datorren igandean egingo den ekimena prestatzen?**

"Bai. Iaz, nazio mailako ekintzak egon ez baziren ere, herri mailako ekintzak bultzatu ziren eta guk,

aurtengo urteari begira, batzorde sustatzaile bat sortu genuen 2017. Urtean herri galdeketa egiteko".

**Nolako izan zen prozesu hori?**

Herri galdeketa egiteko erabakia hartu genuenean, Loratu elkarteak sortu behar izan genuen, prozesu hori legezkoa izan zedin eta juridikoki ere berme guztiak izan zitzaizkien. Protokoloak, biztanleen %10aren sinadura eskatzen du berme bezala, herri galdeketa aurrera eramanez ahal izateko, 1836

sinadura bildu genituen notario aurrean.

**Zertan datza Batzorde Sustatzailea?**

2017. urteko herri galdeketa helburu, lau lantalde sortu ziren galdeketa egiteko antolaketak beharrei aurre egiteko; Komunikazio taldea, ekintzen taldea, galdera adosteko eta harremanetarako taldea eta ekonomia eta logistika taldea. **Eta zein lanketa egin duzue talde horietan?**

Ekonomia eta logistika taldean, Hasiera batean, ekonomiari eutsi

genion, hau da, zenbat diru behar genuen. Esan ziguten, biztanle bakoitzeko euro kalkulatu behar genuela, beraz erronka, 14.000 euro lortzea zen. Ordurako bagenituen 7.000 euro eta errifak salduta 12.000 euro lortu eta diru horrekin ari gara lanean.

Logistikari dagokionean, bozkalekuak aukeratzen hasi ginen lehenik. Horretarako, Lasarte-Oriako elkarte gastronomiko guztiei eskaera bideratu genien beraien lokala bozka leku gisa utziko liguaketen jakiteko. Azkenean, maiatzaren 7an bozka emateko aukeraturako leku guztiak ez dira elkarte gastronomikoak, izan ere, herriko auzo bakoitzean bozka leku bat egotea nahi genuen, eta hori errespetatu asmoz, 6 bozkaleku finkatu ditugu.

Talde honetan ere galdeketa nola izan behar duen protokolo bat jarraitzen dugu. Horretarako, galdeketa aurrera eramateko talde ezberdinak sortu behar izan ditugu; berme batzordea, jarraipen batzordea eta begiraleak. Lehen taldeari dagokionean, legegari eta politologoek osatzen dute eta gure kasuan, legegari bat eta bi zinegotzi dauzkagu. Bigarren taldea, berriz, aurretiazko bozkaren arduraduna izatearekin batera, galdeketa eguneko mahaietako arduraduna ere bada eta gure kasuan, 8 pertsona dauzkagu bertan lanean. Azkeneko taldean, berriz, jardunbidearen gardentasuna eta garbitasuna egiaztatzen duen taldea da, eta hori ziurtatzeko, ANCKo (Assemblea Nacional Catalana) bi kide etorriko dira, errenteriako galdeketa parte hartu duen pertsona bat eta Lasarte-Oriatik ere bi herritar arduratuko dira.

Dena oso legala da; gainerako hauteskundeetan jarraitzen dugun eredu berdina jarraitzen ari gara.

Ekintzen taldea da bigarren lantaldea, eta talde honetako lana batez ere funtzionala da. GEDk eta Protokoloak zehazten dituen ekintzak antolatzea da gure lana; batzorde sustatzailearen aurkezpena, galdeketa dataren aurkezpena eta galderaren aurkezpena, besteak beste.

Hirugarren batzorde gisa, komunikazio taldea dago eta honek, komunikazioari dagokion lan guztiaren ardura dute.



Laugarren eta azken batzordea, berriz, harremanetarako taldea da. Honek, bi helburu nagusi ditu lantalde honek; alde batetik galderarena eta bigarrena, harremanak sortu eta lantzea.

Galdeketa egunerako galdera sortze lanetan hasi ginenean, formakuntza txiki baten beharra genuela sentitzen genuen, eta horretarako, dokumentazioa biltzeaz gain, Unai Apaolaza filosofia irakaslearekin jarri ginen harremanetan.

Prozesu horretan, ezberdinen arteko bilguneak lortzea ere bazen gure helburuetako bat, eta hori guztia lortu asmoz, Berriketan jardunaldia antolatu genuen.

Jardunaldi hartan parte hartzeko, esparru ezberdinetako herritarrei luzatu genien gonbita elkartu eta politikaz hitz egiteko, baina batez ere erabakitze eskubideaz hitz egiteko.

Egun horretan, subjektu politikoa, erabakia, erabakitze eskubidea eta gisa horretako beste hainbat kontzeptu argitu zituen Apaolazak, eta bertan bildutakoan artean gero galdera osatzeko baliagarriak izan diren zenbait irizpide atera ziren. Jasotako irizpide horien arabera, hiru galdera proposamen egin genituen eta parte-hartzaileekin partekatuta, lautik hiruk maiatzaren zazpirako finkatutako galdera egitea erabaki zuten.

**"GALDEKETA AURRERA ERAMAN AHAL IZATEKO LAN TALDEAK OSATU BEHAR IZAN DITUGU"**

**"AUKERA PAREGABEA DA MOLDEAK APURTU ETA DENON ARTEAN, LASAITASUNEZ PARTE HARTZEKO"**

**"ERABAKITZEKO ESKUBIDEA DIOGUNEAN, EZ DUGU INDEPENDENTZIA SOILIK ADIERAZTEN"**



Herrian barrena ibili ziren, galdeketa eguna iragartzen zuen pankarta eta guzti, herritarrei gogorarazten datorren igandean herri galdeketa egingo dela TXINTXARRI

**Lasarte-Oriaren kasuan, galdera bikoitza izango da...**

Bai. Lehenengo galdera oso garrantzitsua da, izan ere, erabakitze eskubidea diogunean, ez dugu independentzia ez subirautza bakarrik adierazten, baizik eta erabakitze eskubidea interes publikoko gaietan. Galdera honekin ere politikatik urrun dagoen jendea aktibatu nahi dugu. Bigarren galderan berriz, bildu nahi genituen kontzeptu guztiak azaltzen dira; euskal, estatu eta burujabe, hain zuzen. Independentzia hitza ordea ez da agertzen, izan ere, hitz horrek karga gehiegi duela uste genuen. Subirautza hitza irekiagoa geratzen da. Badirudi nahasmena dagoela ordea; politika eta partidismoa nahasten dira. Batzuk sentitzen dute futbol zelaia nahiko lokaztua dagoela, eta nahiago dute aparte mantentzea. Aurreiritzi dezente daude oraindik ere.

**Nora joan ahal izango dute herritarrek maiatzaren 7an botoa ematera?**

Auzo guztietan izango da bozka emateko aukera. Sasoeta auzoan, Andatza plaza 4an izango da bozka emateko lekua, 'Azpeitia' altzariak; Zumaburun, Erribera kalea 10 'Lasartearra' elkartean;

Zabaletan, Larrekoetxea bidea 13, Antonio Blas plazan dagoen Zabaleta auzo elkartean; Mitxelin inguruan, Ostadarrek Geltoki kalea 25ean duen lokalean; erdigunean 'Arriskalleta' elkartean; eta Orian, berriz, Zirkuito ibilbidea 15. Zenbakian eman ahal izango dute lasarte-orientarrek bozka.

Guretzako izugarritzko garrantzia izan du apaiz etxeko lokala utzi izanak, bestela ezinezkoa izango zatekeen. Oso eskertuak gaude Parroki Pastoral Kontseiluarekin eman diguten laguntzagatik.

**Inolako baldintzarik bete behar al du bozka ematera joan nahi duenak?** Bozkatu nahi duen orok Lasarte-Orian erroldatuta dagoela bermatzen duen agiri ofizial bat aurkeztu beharko du.

**Galdeketa egunean zer izango da garrantzitsuen?**

Datuek izan dezaketen garrantzia alderatu gabe, garrantzitsua da herrian egin den prozesua; esparru ezberdinetako zenbat jende bildu den bilera ezberdinetan, baita ezberdinen arteko zenbat kontaktu izan diren ere. Hori, herrigintzan, izugarritzko inbertsioa izan da Lasarte-Orian. Azken finean, bozketa

ez da loteslea izango, baina bidean lortu den inbertsioa da benetan garrantzitsua. Izugarritzko lana eta indarra egin da, jende askok esfortzu handia egin du esparru ezberdinetako jendearekin lan egiteko.

Dena den, aitortu behar da ez dugula nahi genuen bezainbesteko aniztasuna lortu, baina hori lortze bidean esfortzua egin dugu. Ate batzuk itxi egin zaizkigu, baina hori lortzeko lanean jarraituko dugu. Bide hau ez da maiatzaren 7an amaitzen.

**Eta egunean bozka ematera gerturatu ezin duenik bada, ba al du aurretiazko bozka emateko aukerarik?**

Bai, noski. Horretarako, bihartik hasi eta maiatzaren 7ra bitarte, aurretiazko bozka emateko aukera izango dute herritarrek. Horrela, Kale Nagusia 16an dagoen apaiz etxeko lokalera gerturatu ahal izango dira lasarte-orientarrak.

**Eta maiatzaren 7ra begira jarrita, egunari ongi etorri emateko izango al da aurrez ekitaldirik?**

Bai, datorren asteazkenerako hitzaldi bat antolatu dugu, Villa Mirentxun. Garbiñe Biurrun epailea eta Angel Oiarbide Gure Esku Dago ekimeneko bozeramailea izango dira

gonbidatu eta hizlariak. Hitzordua, iluntzeko 20:00etan izango da.

**Eta egunean bertan, bozka emateaz gain, izango da egunean zehar ekitaldirik?**

Bai, noski, egun osoko egitaraua prestatu dugu galdeketa egunerako. Okendo plazan karpa txiki bat ere egongo da eta ekintzak egongo dira bertan. Ez da txantxa bat egitera goazena, baina ospatzeko zerbait bezala ulertzen dugu. Herri honetan sekula egin gabeko zerbait da. **Zergatik joan behar dute lasarte-orientarrek datorren igandean bozka ematera?**

Alderdi politikoen, politika zahar eta berriaren joeran murgilduta gaude. Alderdi politikoez egiten dituzte beraien hauteskundeak, instituzioek, Lasarte-Oriako Udalak berak ere egiten ditu, Foru Aldundiak egiten ditu... eta gu ere bide beretik goaz. Herriaren zati batek eskatzen dugu, bide horretan indarra egitea.

Gainera aukera paregabea da molde batzuk apurtu eta denon artean, lasaitasun osoz, ezberdinen arteko parte-hartze prozesu libre batean parte hartzeko. Izan baiezko edo ezezko bozka, baina eman dezatela herritarrek euren botoa.

# "Mendi ezezagunagoetara igo nahi du jendeak"

**TXUSMA PEREZ AZACETA** MENDIZALEA ETA IDAZLEA

'Las Otras Cumbres de la Montaña Vasca' mendizale eta idazle lasarteoriatarraren zortzigarren liburua da. Hain ezagunak ez diren mendi ibilbideak bildu ditu oraingoan

## Martin Vicioso

1995etik darama Txusma Perez Azaceta herritarrak (Legazpi, 1958) mendiari eta mendi ibilbideei buruz idazten. Beste herritar batzuekin batera, Likken aldizkaria sortu zuen, eta gaur egun Sua Edizioak argitaletzeko koordinatzailea da. "Las Otras Cumbres de la Montaña Vasca"-k igotzeko ohikoak ez diren euskal mendiak biltzen ditu.

## Zer jaso duzu argitaratu duzun liburu berri honetan?

Jasotakoak 60 mendi ibilbide dira guztira eta 134 gailurretara igotzeko bidea azalduko da horietan.

## Zenbat denbora daramakizu mendiari buruz idazten?

1995ean Likken izeneko aldizkaria sortu nuen, beste herritar batzuekin batera. 1997an Sua Edizioak argitaletxean hasi nintzen lanean eta 2003an argitaratu nuen nire lehenengo liburua, "Gipuzkoako mendiak". Oraingoa zortzigarrena da.

## Nola bururatu hain ohikoak ez diren mendiak biltzeko ideia?



Perezek berak egindako ibilbideak bildu ditu liburuan. TXUSMA PEREZ

Mendiari buruzko liburu dezente idatziak nituen jadanik, eta konturatu nintzen gailur klasikoek jendez gainezka zeudela. Beraz, mendi ezberdinak eta ezezagunagoak bilatzeko joera hartu nuen ingurukoekin. **Soilik mendi ezagunenetara jotzeko joera izaten dugu?**

Hala da. Normalean erraz bururatzen zaizkigun gailur horiek igotzen ditugu. Gipuzkoan, esaterako, Txindoki, Ernio, Aizkorri edo gertuago Buruntza edota Andatza. Piriniotan ere antzeko fenomeno gertatzen da. Bisitari gutxiago dituzten haranetan bakarrik egotea egokitzen zaizu.

## Zuk egindako ibilbideak dira jasotakoak?

Nik denak egin ditut, gehienetan Sara emaztearekin. Liburuko argazki guztiak ere nireak dira, eta horietan hura agertzen da normalean. Bestalde, Alex Tetuan lagunak asko lagundu nau. Mendi eta ibilbide ezberdin asko ezagutzen ditu, eta zentzu horretan, nire aholkularia izan da lan honetan.

## Euskal Herri osoko mendiak aurki daitezke liburuan.

Bai. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako hamabina ibilbide, Ipar Euskal Herriko zortzi eta Nafarroako hamasei jaso ditut guztira. Ereduari dagokionez, azken hau da zabalena eta mendi gehien duena, Piriniotatik Bardeetara. Horregatik, gidan tarte luzeena hartu du.

## Zer aurkituko du liburu hartzen duenak?

Ibilbide bakoitzak bere aurkezpen testua, mapa eta argazkiak izaten ditu. Gida praktikoa ere idatzi dugu. Bertan, nola joan, sarbideak, zailtasuna eta bestelako informazio erabilgarria kontsulta daiteke.

## Zein zailtasun dute ibilbideek?

Nik jasotakoak ez dira hasiberrientzako mendiak. Mapak, GPSak eta iparorratzak irakurtzen jakitea komenigarria da hauetan. Izan ere, bideak ez daude behar bezala indikatuta edo balizatuta. Jende gutxi joaten da gailur hauetara eta ez da erraza bidea topatzen. Liburuarekin denetara iritsi daiteke, baina ez dira esperientza gabekoentzako gomendagarriak.

## Zein gomendatuko zenieke lasarteoriatarrei?

Andatza inguruko ibilbide bat jaso dut, Zarateko Bentara doana. Zarateaitz (493m) eta Estenagako Txurrua (375m) gailurrak jasotzen ditu. Alex Tetuanek proposatu zidan bidea, eta egia esan, herritarrentzako egokia da. Hemendik aterata oinez egiteko aproposa baita.

## Nola begiztatu dituzu mendi hauek?

Ikertuz eta lagun eta ezagunei galdetuz. Askotan, mendi ezagunen parean aurkitzen diren tontorrek eta bideak dira. Hauek ezagutzeko inguruko mendizaleei galdetzea izaten da aukeretako bat.

## Bigarren zatia edukiko du liburuak?

Ez dakit. Honi bere bidea egiten utzi behar zaio. Baina uste dut beste gida bat egitekotan bide beretik egingo nukeela, are ezezagunagoak diren mendiak bilduz. Bide gehienak oso ezagunak dira dagoeneko. Gogoak badituz gehiago aurkitzeko. Argitaletxean lan egiten dut eta nire lana ere bada.

## Ze iritzi jaso duzu honi buruz?

Kritika onak jaso ditu orain arte. Nik uste dut mendizaleek eskatzen zuten gaia zela. Ezezagunagoak diren mendietara igo nahi du jendeak, eta liburu honek zenbait proposamen dakartza zentzu horretan.

## "LASARTE-ORIATIK ANDATZA ONDOKO ZARATEKO BENTAKO BIDEA EGITEA PROPOSATZEN DUT"

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

### FUTBOLA

KADETEEN OHOREZKO MAILA,

**Hernani CD - Ostadar SKT**

Larunbata. 10:45. Zubipe, Hernani.

KADETEEN LEHENENGO MAILA

**Billabona - Ostadar SKT**

Igandea. 12:00. Arratzain, Billabona.

INFANTILEN OHOREZKO MAILA

**Ostadar SKT - SANSE**

Larunbata. 13:45. Michelin.

JUBENILEN IGOERA FASEA

**Beti Ona CD - Ostadar SKT**

Igandea. 15:15. Beraun, Orereta.

EMAKUMEEN LURRALDE MAILA

**Ostadar SKT - Ordizia KE**

Larunbata. 15:30. Michelin.

ERREGIONALEN OHOREZKO MAILA

**Ostadar SKT - Hondarribia**

Larunbata. 17:15. Michelin.

JUBENILEN OHOREZKO MAILA

**Beti Gazte KJKE - Ostadar SKT**

Igandea. 17:00. Mastegi, Lesaka.

ARETO-FUTBOLA

HERRIKO TXAPELKETA

**Izkiña - Urdaneta H.K.**

Ostirala. 19:45. Kirolgunea.

**Viña del Mar - Also**

Ostirala. 20:45. Kirolgunea.

**Trumoi - Indaux**

Larunbata. 09:30. Kirolgunea.

**Reformas Lagunak - Kebab Taberna**

Larunbata. 10:30. Kirolgunea.

**Ilargi - Aita Amari**

Larunbata. 12:30. Kirolgunea.

GIPUZKOAKO 1GO MAILA

**Jaixki AFT - ISU Leihok**

Ostirala. 21:35. Bekoerota kiroldegia, Lezo.

**Cecilia Ostadar - Power Rangers**

Larunbata. 16:00. M.Chourraut kiroldegia.

3. NAZIONAL MAILA

**Sasikoa Durango CD - Ostadar**

**Antonio Aroztegia**

Igandea. 12:00. Landako, Durango.

SASKIBALOIA

SENIOR EMAKUMEZKOA,

1. PROBINTZIALA

**TAKE Aralar kirolak - Ostadar SKT**

Larunbata. 16:00. Usabal kiroldegia,

Tolosa.

PARTIZIPAZIOKO KADETEAK

**Ostadar SKT - Oiarso**

Igandea. 09:30. M.Chourraut kiroldegia.

IGERIKETA

UDABERRI LIGA

**Buruntzaldea IKTKo igerilari infantil, junior eta absolutuek Udaberri**

ligako lehenengo jardunaldia

**jokatuko dute**

Larunbata. 16:00. Andoain

LASTERKETA

AFIZIONATUAK

**Herriko lasterkari ugari Santa Kruz**

**krossean lehiatuko dira.**

Astelehena. 10:00. Andoain.

PILOTA

GIPUZKOAKO LAU T'ERDIKO

TXAPELKETA, NAGUSIAK

**Gorostidi (Intxurre) - Artetxe (Intza)**

Ostirala. 18:15. Elorri pilotalekua,

Alegia.

**Zapirain (EPLE) - Iruretagoiena (Intza)**

Ostirala. 18:30. Agustina Otaola pilotalekua, Erreterria.

ALEBINAK ETA INFANTILAK

**Intza - Hernani (Alebin maila)**

**Intza - Gazteleku (Infantil maila)**

Ostirala. 19:30. Michelingo pilotalekua.

ERRUGBIA

OHOREZKO B MAILA, IGOERA

FASEA

**La Vila - Babyauto Zarautz**

Igandea. 12:00. Villajoyosa, Alacant.

TXIRRINDULARITZA

INFANTIL, KADETE ETA

JUNIORRAK

**Buruntzazpi Txirrindularitza**

**Eskolako txirrindulariek zenbait**

**lasterketetan hartuko dute parte.**

**Infantilek Astigarragan eta**

**Andoainen, Kadeteek Urretxun eta**

**jubenilak Amurrión**

Asteburua. Astigarraga, Andoain, Urretxu eta Amurrión



Elektrizitatea

# GREMIOEN GIDA 2017

*Arreta profesionalena, zugandik gertu*



- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak

Kale Nagusia 39, LASARTE-ORIA  
Tel. 943 36 10 80 - Tel/Faxa: 943 37 25 21  
600 857 586 - www.electricidadarregui.com  
tienda.electricidadarregui.com (on-line denda)



Igeltseritza



Arkitektura eta Barne-Diseinua



**Josue**  
Igeltseritza

606 37 21 05  
josueigeltseritza@euskalnet.net

Atallu pol. 28  
20170 USURBIL

**Igeltseritza orokorra**  
Estalkien berriztatzeak  
Fatxaden estaldurak  
Barruko berrikuntzak  
Gremioen koordinaketa



**borobil**  
arkitektura

Kale Nagusia 27-29 behea  
20160 Lasarte-Oria  
943 50 78 51  
info@borobilarkitektura.eus  
www.borobilarkitektura.eus

- Energia ziurtagiriak
- Eraikinen ITEak
- Aktibitate lizentziak
- Proiektuak
- Erreformak



**SUGATE**

SUKALDEAK ETA BARNE-ERREFORMAK

Pintore kalea 5, Lasarte-Oria  
Tel: 943 36 14 71  
sugatesukaldeak@gmail.com  
www.sugate.net

- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- ORDENADORE BIDEZKO DISEINUA
- AURREKONTUA KONPROMEZURIK GABE
- HORMA-ARMAIRUAK
- ETXETRESNA ELEKTRIKO MARKA GUZTIAK



Iturgintza



Kristaldegi eta Leihoak



**ILLARRETA**  
ITURGINTZA

- ERAKUSKETA ETA SALMENTA
- KONPONKETAK ETA ERAIKUNTZA zink, berun eta arbelean
- INSTALAZIOAK
- IGLTSEKITZA OROKORRA
- GREMIOEN KOORDINAZIOA

Geltoki kalea 21, Lasarte-Oria  
943 36 31 47 / 943 37 36 17 52 -  
Taillerra: Oialume bidea 24, Astigarraga  
info@illarreta.com



Uistin kalea, 11 (Zubieta Plaza)  
Tel./Fax: 943 36 23 52 - M: 607 234 522

**20160 LASARTE-ORIA**

- ISPILUAK
- BEIRA APAINGARRIAK ETA ALAKATUAK
- MERKATARITZA-INSTALAZIOAK
- DUTXA-ITXIDURAK
- KRISTALGINTZA OROKORRA



**ISU**  
25 urtez zuekin!

*Mota guztietako leiho, pertsiana,  
manpara, toldo eta dekorazioko  
profesionalak zure zerbitzura*

ZUBI TERMIKOAREN HAUSTURA,  
ALUMINIOA, PVC ETA POLIURETANOAK

Kale Nagusia, 46 behea • Lasarte-Oria  
Tel. 943 36 64 95 • Faxa: 943 36 52 22  
ventanas\_isu@hotmail.com  
Pol. Ugaldea, 21 • 6 lokala, Usurbil

Hurrengo gida maiatzaren 26an.  
Parte hartu nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:  
943 37 14 48 (106) / 646 82 44 66



Urritasunen bat duten kirolarien ikuspuntua ezagutu zuten gaztetxoek igandean. TXINTXARRI

# Kirola denona eta denontzat delako

Ostadar SKTren Kirol Egokitu sailak 'Kirola denontzat' ekitaldia egin zuen joan den igandean Maialen Chourraut kiroldegian. 8 eta 12 urte bitarteko gaztetxo asko animatu ziren kirol-ginkanako jokoetan parte hartzera.

## Iñigo Gonzalez

Kirola denona da, eta denontzat. Mezu hori zabaldu zuten joan den igande goizean Ostadar Kirol Egokituko saileko kideek, Maialen Chourraut Udal Kiroldegian antolatu zuten ekitaldian. 8 eta 12 urte bitarteko hainbat haur animatu ziren kirol-ginkanako jokoetan parte hartzera eta kirol-goiz ederra pasatzera. Urritasunen bat daukaten kirolarien ikuspuntua ezagutu ahal izan zuen hainbatek.

Adibidez, saskibaloian jokatzen gurgildun aulki baten gainean. Lerrook idatzi dituen kazetariak ere probatzeko aukera izan zuen, eta onartu beharra du engantxatu egiten duela, xarma daukala. Eta ez dela batere erraza hasieran! Gurgildun aulkia kontrolatu bitartean baloia jaso, mugitu, pasa, jaurti, jokoaren nondik-norakoak kontrolatu... zirrargarria.

Saskibaloiaz gain, gazteek jokatu ahal izan zuten bolotara, tokara, begiak estalita eduki

bitartean txintxarridun baloia beste taldeari jaurti eta golak sartzera...eta beste hainbat jokatara ere bai. Kirol Egokituko arduradunen eta EHUko ikasle bolondres talde baten laguntza izan zuten neska-mutilek goizean zehar. Gainera, harmailak irekita egon zirenez, parte-hartzaileen familia eta lagunak ere gerturatu ziren kiroldegira.

Hiru ordu pasatxo z jolasean eta kirolaz gozatuz aritu ostean, antolatzaileek hainbat sari zozketatu dituzte gaztetxoeren artean, goizari amaiera biribila emateko.

Joan den igandeko argazkiak ikusi nahi izanez gero, txintxarri.eus web orrialdean daude ikusgai, 'Multimedia' ataleko 'Argazkiak' azpiatalean.



Besteak beste, saskibaloian jokatu zuten. TXINTXARRI



Rekondo anaiek hasieratik jokatu zuten. PAOLA VEGA

## Etxeko partidua galdu eta igoera zaildu zaio Babyauto Zarautzi

Ohorezko Mailara igotzeko kanporaketan, joanekoa galdu du Babyauto Zarautzek La Vilaren aurka (22-34)

### Martin Vicioso

Ondo hasi zuten Babyauto Zarautzeko mutilek Ohorezko Mailara igotzeko kanporaketa. 3-9 galtzen hasi ondoren, bi entsegu eskuratu eta aurretik jarri ziren 17-9. Atsedenaldia iritsi aurretik, ordea, berdinketa lortu zuen Alacanteko taldeak.

Aldageletatik ez zen behar bezala aterata gipuzkoarra, eta aurkariak hiru entsegu eta transformazio bat lortu zituen hamabost minututan, etxekoan akatsak baliatuta.

Norgehiagokaren amaiera aldera, jokoa hobetu zuten

gorribeltzek, partiduko azken entseguak lortuz eta 22-34ko markagailua itxiz.

Lasarte-Oriako Rekondo anaiek hasieratik jokatu zuten, eta Xabi Prieto eta David Vega aulkian izan ziren.

### Igandean itzulikoa

Zarauztarrek hamabi puntuko aldeari buelta eman beharko diote igotzeko ametsa bizirik mantendu nahi badute.

Igande eguerdian jokatuko da kanporaketako partidua erabakigarria, Alacanteko Pantano de Vilajoyosa zelaian.

## Gaur banatuko ditu Ostadar SKTk porrako sariak, Ainhoan

Euskal Herriko Itzuliko porrako sariak banatuko ditu gaur Ostadar SKTk Ainhoa tabernan, arratsaldeko zazpitan.

'Gontzal Motor' boletoak irabazi du 360 euroko sari nagusia, eta 'Iara'-k bigarrena, 180koa. Genesis izan da puntu gehien lortu dituen taberna: guztira, 9.678. Txartel Txoko jabetxean bi pertsonarentzako afaria irabazi dute. Horiez gain, zortzi otar ere banatuko dituzte gaur, esan bezala, Ainhoa tabernan.

Bestalde, Italiako Giorako porra egiteko zerrendak eta txartelak maiatzaren 2an banatuko ditu Ostadarrek, ohiko tabernetan. Parte hartzera animatzen dituzte herritarrek.

## Indartsu sartu da Arteaga II buruz buruko finalerdietan

Beste final bat jokatzeko gertu da Axier Arteaga aurreko ostiralean Aitor Irusta gaititu ostean. Munitibartarra baino gehiago izan zen partidua hasieratik, eta norgehiagokak ez zion inongo momentutan alde egin. 22-3ko emaitzari esker finalerdietan da Asegarceko pilotaria.

Peña II izango du aurkari datorren asteko larunbatean Tolosako Beotibar pilotalekuan.

Astelehenean, berriz, Zumaian jokatu zuen Jon Ander Albisuren batera Victor eta Imazen kontra. Zortea ez zuen aldeko izan eta 22-15 galdu zuten lasarteoriatarrek eta ataundarrak.



# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

## OSTIRALA 28

### URNIETA Hitzaldia

Alex Txikon mendizaleak Nanga Parbat eta Everest mendietako esperientzia partekatuko du bertaratutakoekin, Zanpatuz mendi elkarteak eta Urnietako Udalak antolatuta  
*Sarobe kultur etxea, 19:00tan.*

## LARUNBATA 29

### LASARTE-ORIA Dantza

Dantzaren Nazioarteko Eguna ospatuko dute Villa Mirentxun, Kukuka Antzerki eta Dantza Eskolak antolatuta. Myriam Perez, Arantza Iglesias eta Sergio Nguema dantzariak erakustaldia egingo dute, eta ondoren haiekin solasteko eta luntxa dastatzeko aukera egongo da.  
*Villa Mirentxu, 12:00tan.*

### LASARTE-ORIA Haur Antzerkia

Markeliñe antzerki konpainiak "Euria" antzezlanaren ekarriko du Lasarte-Oriara. Testurik gabeko eta haurrei zuzendutako lan honek "maite dugun norbait jadanik ez dagoenean gertatzen zaigunari buruz" hitz egiten du.  
*Manuel Lekuona kultur etxea, 18:00tan.*

### USURBIL Festa

Gure Esku Dago herri mugimenduak "Erabaki Fest" festa antolatu du goizetik gauera. Goizean mosaiko erraldoia egingo dute; ondoren, elkarrekin bazkalduko dute zikiro janan eta arratsaldean herriko kaleak elektrotzarangak girotuko ditu.  
*Mikel Laboa plaza, 12:00tan.*

### URNIETA Kultura

Iñistorra euskaltzaleen biltzarrak antolatuta Liburuaren Eguna ospatuko dute. Goizean liburuen postua jarriko dute San Juan Plazan eta iluntzean emanaldi akustikoa emango dute Lappa eta Lear taldeek Sarobe kultur etxean. Sarrerak 3 eurotan salduko dira Bikain kafetegian eta Xauxar tabernan.  
*San Juan plaza, 11:00etan.*



### LASARTE-ORIA Dantza

Dantzaren Nazioarteko Eguna dela baliatuz, Euskal Herri mailan ospe handia duten hiru dantzariekin gozatzeko parada egongo da, Kukuka Antzerki eta Dantza eskolak antolatuta.  
*Larunbata 29, Villa Mirentxu, 12:00tan*

### ANDOAIN Musika

Santa Kruz jaien egitarauaren barnean, Potentor eta Ingo Al Deu musika taldeek kontzertua eskainiko dute.  
*Beko plaza, 00:00tan.*

## IGANDEA 30

### ANDOAIN Musika

Santa Kruz jaien egitarauaren barnean, Willis Drummond eta Bad Sound System taldeek kontzertua eskainiko dute.  
*Beko plaza, 23:00tan.*

## ASTELEHENA 1

### GIPUZKOA Mobilizazioak

Langileen Nazioarteko Eguna dela baliatuta, herri ezberdinetan lanbideen eskubideak aldarrikatzera deitu dituzte herritarrak langile eta sindikatuek.  
*Leku ezberdinetan.*

## ASTEARTEA 2

### LASARTE-ORIA Erakusketa

Emakumeen Zentro Zibikoak antolatuta, Euskal Fondoaren "Emakumeak. Afganistan" argazki erakusketa antolatuta dute

hilaren 2tik 12ra. Afganistanen emakumeek bizi duten egoera irudikatuko du galeriak.  
*Antonio Mercero.*

### ZUBIETA Hitzaldia

Amelia Barquin irakasleak "Hezkuntza eta generoari" buruzko formazioa emango du, Zubietako Herri Eskolako Ikasleen Guraso Elkarteak antolatuta.  
*Kaxkape, 17:00etan.*

## ASTEAZKENA 3

### LASARTE-ORIA Hitzaldia

"Merkataritzako eta ostalaritzako establezimenduetan segurtasunari" buruzko hitzaldia eskainiko dute Hernaniko komisaldegiko zenbait agentek, Aterpeak eta Lasarte-Oriako Udalak bultzatuta  
*Manuel Lekuona kultur etxea, 20:00tan.*

### LASARTE-ORIA Hitzaldia

Gure Esku Dago herri mugimenduak antolatuta, Garbiñe Biurrun epaileak eta GED-ren bozeramaile Anjel Oiarbide hitzaldia eskainiko dute. Erabakitze eskubideari buruz arituko dira eta galderak egiteko aukera edukiko dute bertaratutakoekin,  
*Villa Mirentxu, 20:00tan.*

## ZINEMA

### LASARTE-ORIA

#### MANUEL LEKUONA

**Los pitufos: la aldea escondida**  
Igandea: 17:00.

**Kong: la isla calavera**  
Igandea: 19:30.

### ANDOAIN

#### BASTERO

**El Bebé Jefazo**  
Larunbata: 17:00.  
Igandea: 17:00.

**El Bar**  
Larunbata: 19:30, 22:00.  
Igandea: 19:30.  
Astelehena: 19:30, 22:00.

### USURBIL

#### URBIL

**El Bebé Jefazo**  
Ostirala: 16:00,

17:00, 18:10, 19:00.  
Larunbata: 16:00, 17:00, 18:10, 19:00.  
Igandea: 16:00, 17:00, 18:10, 19:00.

**Fast & Furious 8**  
Ostirala: 16:20, 19:10, 22:00, 00:50.  
Larunbata: 16:20, 19:10, 22:00, 00:50.  
Igandea: 16:20, 19:10, 22:00.

**Guardianes de la galaxia vol. 2**  
Ostirala: 16:20, 17:10, 18:00, 19:10, 20:00, 22:00, 23:00, 00:50  
Larunbata: 16:20, 17:10, 18:00, 19:10, 20:00, 22:00, 23:00,

00:50  
Larunbata: 16:20, 17:10, 18:00, 19:10, 20:00, 22:00, 23:00,

00:50  
Igandea: 16:00, 16:45, 18:00, 18:50, 19:40, 21:40, 22:20

**John Wick. Pacto de Sangre**  
Ostirala: 20:15, 22:45, 23:30.  
Larunbata: 20:15, 22:45, 23:30.  
Igandea: 20:15, 22:45.

**La Bella Y La Bestia**  
Ostirala: 21:15.  
Larunbata: 21:15  
Igandea: 21:15

**Life**  
Ostirala: 22:45, 00:00.  
Larunbata: 22:45, 00:00.  
Igandea: 22:45

**Los Pitufos: La Aldea Escondida**  
Ostirala: 16:00  
Larunbata: 16:00


Igandea: 16:00

**Plan de Fuga**  
Ostirala: 15:50, 18:05, 20:20, 22:35, 00:50.

Larunbata: 15:50, 18:05, 20:20, 22:35, 00:50.  
Igandea: 15:50, 18:05, 20:20, 22:35

**Un Golpe con Estilo**  
Ostirala: 20:45  
Larunbata: 20:45  
Igandea: 20:45

**Un Italiano En Noruega**  
Ostirala: 15:45, 17:40, 19:30, 21:30, 00:55  
Larunbata: 15:45, 17:40, 19:30, 21:30, 00:55  
Igandea: 15:45, 17:40, 19:30, 21:30.



### LABURPENA

#### Kong: Skull island

**Zuz.:** Jordan Vogt-Roberts. **Herr.:** AEB (2017). **Gidoia:** Dan Gilroy, Max Borenstein. **Aktoreak:** Tom Hiddlestone, Samuel L. Jackson, Brie Larson, John Goodman. **Iraupena:** 118 minutu.

## Kong: Garezurren irla

Esploratzaile talde bat bildu dute, hainbat motatako jendea elkartuta: zientzialariak, abenturazaleak, ehiztariak... Misio bat emango diete: mapetan agertzen ez den Ozeano Bareko uharte eder bezain arriskutsu baten bihotzeraino joatea. Esploratzaileek ez dakite King Kong gorila erraldoiaren eremuan sartuko direla.

Izen handiko aktoreek hartu dute parte akziozko eta abenturazko film honetan. Tom Hiddlestone ezaguna da 'Thor' eta 'Avengers' pelikula sortan Loki maltzurra antzezteagatik edota

Woody Allenen 'Midnight In Paris'-en parte hartzeagatik. Brie Larsonek, berriz, aktore onenaren saria irabazi zuen 2015eko Oscar sarietan 'Room'-en egindako lanari esker.

Jordan Vogt-Roberts zinemagilearen bigarren lana da, 'The Kings Of Summer' lan independentearen ondoren.

'King Kong' film saga entzutetsuan oinarritutako filma da. 'Godzilla'-ren ekizleek bultzatuta, bi piztiak elkarren kontra jarriko dituzte 2020an 'Kong vs Godzilla' lanean.

## ZORION AGURRAK




**Maialen**  
Zorionak politta!!!  
Hamabi muxu handi,  
eta ondo pasa zure  
urtebetetzean, Leire,  
aiton-amona eta  
familien partetik  
bihotzez.



**Paul**  
Paul, zorionak zure 5.  
urtebetetzean!  
Zuretzako Mattin,  
aitatxo eta amatxon  
muxu potoloak!



**Aitor**  
Zorionak Aitor!  
Muxu asko asko aitona  
Alfredo eta amona  
Pepiren partez!



**Izar eta aitona**  
8 urte zuk Izar eta  
aitonak +46! Egun  
bereko bi altxor. Urte  
askotarako familia  
guztiaren partez.

## AZOKA TXIKIA

## 1. ETXEBIZITZA

**102. ERRENTAN EMAN**  
Garaje itxia alokatzen da  
Pablo Mutiozabalena.  
Informazio gehiagorako.  
686 674 552

Etxebizitza alokatzen da  
Sasoeta auzoan. 2 logela  
ditu eta berogailua etxe  
osoa. 649 526 766

## 2. LAN ESKAINTZAK

**201. ESKAINTZAK**  
Emakume bat zaintzeko  
interno moduan lan egingo  
duen pertsona bilatzen ari  
gara. 688 645 791

**202. ESKAERA**  
Orduka edo barneko langile  
bezala aritu nahiko lukeen  
mutila naiz. Pertsona

nagusiak zaintzan edo  
beharrezkoa den edozein  
lanetan. 603 720 826.

Mutila eskaintzen da  
pertsona helduak  
zaintzeko, baita  
eraikuntzan aritzeko ere.  
655385563

Neska arduratsua  
eskaintzen da  
asteburuetan lan egiteko.  
Larunbatean 14:00tik

aurrera eta igande egun  
osoz. 622 733 606

Euskarazko eta  
ingelesezko eskola  
partikularrak ematen ditut  
kopuru ekonomikoan.  
600766868

## 4. IRAKASKUNTZA

**402. EMAN**  
Ingeleseko eskola  
partikularrak ematen  
dira. Maila eta adin  
guztiei zuzenduta 693  
601 222

## ESKELAK

### ESKELAK JARTZEKO: Txintxarri erredakzioan 943 37 14 48

- Hileta egunean eskela txintxarri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona  
Txintxarri paperean 90€
- Eskela mota guztiak Txintxarri paperean + txintxarri.eus-en: 90 €
- Eskela mota guztiak paperean: 80 €

**Txintxarri: doan eta euskaraz Lasarte-Oriako etxe guztietan**

## OHARRAK

### Bai Udan blai udalekuak

Maiatzaren 2an irekiko da BaiUdanblai  
Udalekuetan izena emateko epea. Uztailan  
astebeteko hiru txanda egingo dituzte, eta  
informazio gehiago nahi duenak, kiroldegian  
eska dezake.

### Zubietako Txokoak

Zubietako Guraso Elkarteak uztaila eta  
abuztuaren haur txokoak antolatuko ditu  
Zubietan, 2 eta 12 urte bitarteko haurrei  
zuzenduak. Maiatzaren 12a arte aurretiko  
izen emate epea zabalik dago. Interesatuak  
zubietatxoko@gmail.com helbidera idatzi  
dezakete edo 649 659 786 telefonora dei dezakete  
izen emateko informazioa eskatuz.

## JAIOTAKOAK

**Naiara Piguave Silva.** Apirilaren 17an.  
**Iker Montero De La Fuente.** Apirilaren 19an.  
**Irati Romero Arechaga.** Apirilaren 20an.  
**Daniela Villalon Gonzalez.** Apirilaren 21ean.

## HILDAKOAK

**Joaquin Goyaran Aguirre.** Apirilaren 26an, 86 urte.  
**Josefa Arratibel Imaz.** Apirilaren 21ean, 87 urte  
**Santiago Armendariz Dominguez.** Apirilaren 21ean, 71  
urte.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 28 LASA  
Larunbata, 29 DE MIGUEL  
Igandea, 30 DE MIGUEL  
Astelehena, 1 DE MIGUEL  
Asteartea, 2 ACHA-ORBEA  
Asteazkena, 3 URBISTONDO  
Osteguna, 4 GANDARIAS-URIBE

**EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00**  
ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52  
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49  
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51  
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74  
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29  
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67  
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

### GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

Echeveste Elosegui: Elkano Kalea 9, Hernani/ 943 55 20 87

**Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia  
eskuratzeke, bidali FARMA 215800 zenbakira.**  
Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera  
(www.cofgipuzkoa.com).

## TELEFONOAK

#### UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943 371 629  
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184  
KIROLDEGIA: 943 376 182  
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943 376 181  
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179  
KIUB: 943 361 605  
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621  
MUNTTERI AEK: 943 372 863

#### LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943 007 960  
DYA: 943 464 622  
GURUTZE GORRIA: 943 363 953  
UDALTZAINAK: 943 362 442  
ERTZAINZAK: 943 288 888  
SOS DEIAK: 112

txintxarri

www.txintxarri.eus

#### PUBLIZITATEA

Ttakun Kultur Elkarteak  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 37 14 48 (106)  
publizitatea@ttakun.eus

#### EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarteak  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 37 14 48 (104)  
WhatsApp: 688 68 35 10  
txintxarri@txintxarri.eus

#### Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

#### Lege Gordailua:

SS-513/94  
ISSN: 1134-0053  
Tirada: 7.800 ale

BABESLEA

LAGUNTZAILEAK



LASARTE-ORIA  
1134 0053



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Salburuordetza



Gipuzkoako Foru Aldundia



**USURBILGO  
LANBIDE  
ESKOLA**

CIFP USURBIL LHII

**943 36 46 00**  
**www.lhusurbil.eus**

## Maiatzak 6, 10 eta 13: ATE IREKIAK

\*Ordutegia: maiatzak 6 eta 13, larunbatak 11:00etan eta maiatzak 10, asteazkena 18:00etan  
Ikastetxearen instalazioan bisita gidatua eta heziketa-proiektuaren azalpena

Fabrikazio mekanikoa



Elektrizitate-elektronika



Administrazioa



Produktzio zerbitzu  
eta mantenimendua



Energia eta ura



**Erdi eta goi mailako zikloak  
A, B eta D Ereduak**



**EUSKARAZ  
BIZITZEKO  
HURRENGO  
URRATSA**

**ERRENTA  
AITORPENA  
EUSKARAZ**

**APIRILAREN 6TIK  
AUTOLIKIDAZIOA  
ONARTZERAKOAN,  
SAKATU  
EUSKARAREN  
AUKERA**

Informazio gehiago:  
<http://euskara.buruntzaldea.eus>  
f Albisteak elkarbanatu eta opariak  
eskuratu!  
Andoain / Astigarraga / Hernani /  
Lasarte-Oria / Urnieta / Usurbil  
UDAL EUSKARA BATZORDEAK



**ORIENTE** Institutua  
LASARTE-ORIA Bigarren Hezkuntza



LANDABERRI ERAIKINA  
1. eta 2. DBH



LARREKOETXE ERAIKINA  
3. eta 4. DBH | BATXILERRA



**2017-2018 IKASTURTEA  
ONARPENA BATXILERGOA**

Ikastetxean eskaerak:  
2017ko maiatzaren 2tik 12ra arte  
On-line:  
2017ko maiatzaren 2tik 11ra arte